

GILTZARRI HEZKUNTZA-AISIALDIKO ZERBITZUKO JARDUERETAN ETA TALDEETAN PARTE HARTZEA 2020-2021 IKASTURTEAN

Ikasturte honetan Giltzarriren programa oso berezia izango da. Kalera irten behar dugu, berriro topa egin, gure zaletasunak berreskuratu, geure burua zaindu, baina une berezi batean gaudela kontuan hartuta, seguru eta zainduta egon behar dugu, eta hirian gako berriekin bizitzen ikasi behar dugu. Horretarako, behar horiei guztiei erantzuteko eta berriz ere elkarrekin egoten ikasteko jarduera-programa bat diseinatu dugu. Gustatuko zaizuela eta gozatu ahal izango dugula espero dugu!

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

- Gazte-taldeek iraupen mugatua izango dute.
- Plazak mugatuak izango dira, unean uneko inguruabarren eta osasun-araudiaren arabera, eta taldeak, edukierak, ordu-tegiak eta abar aldatu ahal izango dira, ezartzen den araudiaren arabera.
- Ahalik eta jende gehienak parte har dezan, gazte-talde bakar batean parte hartzeko aukera emango zaio pertsona bakoitzari denboraldi bakoitzean, salbu eta plazak soberan badaude, edo zozketak egingo dira.
- Aisialdiko, kulturako eta prestakuntzako jarduerak leku mugatua izango dute. Plazak izen-emate ordenaren arabera esleituko dira.
- Inskripzio-fitxarekin batera, 4. eranskina erantsi beharko duzue, behar bezala sinatuta.
- Egiaztatu arretaz irakurtzen duzula dokumentazio osagarri guztia (1-4 eranskinak)
- Konturen bat aipatu behar diguzuela uste baduzue, deitu.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Zure maskara eraman behar duzue egunero.
- Zure ur botila ekarri beharko duzue egunero eta talderako edo jarduerako beharrezko materiala.
- Higiene, segurtasun eta urruntze fisikoko neurri guztiak hartuko dira.
- COVID-19rekin bateragarria den sintomaren bat baduzu, ez joan eta abisatu hezitzaileari
- Arrazoiren batengatik huts egin behar baduzu, abisatu hezitzaileari
- Errespetatu beti zure hezitzailearen edo monitorearen jarraibideak
- Baldintza meteorologikoek uzten ez badute, ezingo da aire libreko jarduerarik egin. Adi egon hezitzailearengandik jasotzen dituzun mezuei.
- Jarduerak bertan behera gera daitezke, ezinbesteko kasuetan.

01. ERANSKINA. COVID-19-A DELA-ETA 2020-2021 IKASTURTEAN "GILTZARRI" ZERBITZUAREN GAZTEEN HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERAK EGOKITZEKO PLANA

Dokumentu honek Barakaldoko Udalak 2020-2021 ikasturteko aisia hezitzaileko Giltzarri zerbitzuko jarduerak garatzeko egin duen egokitzapen-plana jasotzen du. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak eta beren legezko tutoreak dira. Jardueraren datuak honako hauek dira:

Lekuak: Gurutzetako Topalekua, Lurki Bilgunea, Clara Campoamor Zentro Zibikoa (Barakaldo) eta beste leku batzuk (irteerak).

Dokumentu honen hartzaileak parte-hartzaileak eta haien legezko tutoreak dira.

NEURRIAK

1. Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa

- COVID-19aren sintomatologia hemen kontsulta daiteke: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCovChina/img/COVID19_sintomas.jpg
- Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da jarduerara joango eta arduradunarekin harremanetan jarriko da, hau da, ekintzaren arduradunarekin (hezitzailea, koordinatzailea) edo Gazteria Sailarekin honako telefono-zenbakira deituz (688 8098 99// 944789266) edo barakaldogaztea@barakaldo.eus helbide elektronikora idatziz.
- Jardueraren arduradunak bertako segurtasunaz arduratuko dira. Instalazioen sarreran osasunadierazpena jarriko dute eta agindutako segurtasun-protokolo eta -neurri guztiak beteko dituzte, besteak beste:
 - a. Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena (4. eranskinean jaso) izatea, arrisku-talde batekoa ez dela eta bere bizikideen artean arrisku-talde bateko inor ez dagoela ziurtatuz.
 - b. Parte-hartzaile bakoitzaren konpromisoa izatea, egunero osasun-egoera eta ez joateko arrazoia jakinarazteko (4. eranskinean jaso)
 - c. Parte-hartzaile bakoitzaren egiaztagiria izatea, derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartuz. (3. Eranskina)
 - d. Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako baimen informatua izatea. (4. eranskinean jaso)
 - e. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik arriskuan dauden pertsonen parte hartzeko bete behar diren baldintzei buruzko informazioa emana izatea.
- Jarduera egingo den instalazioan, kartelak eta informazio-orriak egongo dira, segurtasun-portaera eta -distantzia egokiak, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.
- Jardueraren hasieran parte-hartzaileekin tailerrak eta ekintzak egingo segurtasun-portaera eta -distantzia egokiak, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.

2. Derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea

- Erabiltzaileek honako hauek izango dituzte eskura instalazioaren sarreran eta leku komunetan: ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera edota gel hidroalkoholikoak, edo Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako birusaren kontrako desinfektatzaileak, eskuak garbitzeko.
- Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea.

- Erabiltzaile bakoitzak bere maskara eraman behar duela alde batera utzita, azpitalde bakoitzeko begiraleak erreserbako maskarak izango ditu, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordeztu ahal izateko.
- Azpitalde bakoitzeko begiraleak gel hidroalkoholikoa eta paperezko zapiak izango ditu uneoro, eta erabiltzaileen eskura jarriko ditu.
- Jardueran parte hartzen dutenei tenperatura hartu ahal izango zaie hasi aurretik.
- Arau hauek betetzen ez direnerako ondorio-neurriak, indarrean dagoen legeriaren barruan agintari eskudunak onartuak, ezarriko dira.

3. Arrisku-taldean eta sozialki desabantailak dituztenen babesa

- Jardueran parte hartu aurretik, arduradunek arrisku-taldeetako kideen (diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, tratamendu aktiboan dagoen minbizia, haurdun dauden emakumeak, 60 urtetik gorakoak) edo halakoekin bizi direnen parte-hartzeari buruzko balorazioa egingo dute.
- Arreta berezia eskainiko zaie parte hartzeko aukerak urrituta dituztenei (arrisku-taldeak, gizartedesabantailako egoeran daudenak, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten pertsonak), eta laguntza-begiraleak edo berariazko begiraleak jarriko zaizkie.
- Ahal den neurrian online aukerak proposatuko dira, arrisku-kolektiboen edo arrisku-pertsonekin bizi direnen jardueretan parte-hartzea sustatzeko.

4. Jardueretarako izen-ematea

- Izen-ematea on line egingo da, formularioetara eta dokumentaziora www.barakaldo.eus webgunean dagoen udal-egoitza elektronikoaren bidez sartuz, eta behar den dokumentazioa erantsi eta bidali beharko da, behar bezala beteta, adierazitako posta elektronikoaren bidez.

5. Aurrez aurreko jarduerak egokitzea eta berrantolatzea

- Parte-hartzaileen sarrera mailaka egingo da, pilaketak saihesteko. Jardueran parte hartzen duen azpitalde bakoitzak sartzeko eta jasotzeko ordutegi espezifikoak izango du, gainerako azpitaldeetatik bereizita
- Jarduerak egiteko orduan, lehentasuna eman zaie prebentzioko eta pertsonen arteko gizartedistantziako neurriak betetzea ahalbidetzen duten jardueri.
- Etengabeko kontaktu fisikoa eskatzen duten jarduerak egitea saihestu da.
- Jarduera 10 parte-hartzaileko azpitaldeetan egingo da, begirale erreferente batekin, eta taldeko gainerako azpitaldeekiko autonomoak izango dira.
- Gazteen aisia hezitzaileko jarduerak parte-hartzaileen arteko harreman fisikoa nahitaez eskatzen duten arren, hau mugatu egingo da. Horregatik, ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da eta maskarak erabiliko dira osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan.
- Jardueraren ardura duen erakundea udalerriko beste agente baliokide batzuekin koordinatuko da, pilaketak saihesteko, bai eta agintari eskudunekin ere, espazio publikoak modu ordenatu eta seguruan erabiltzeko.

6. Begiraleak, jarduera-azpitaldeen arduradun gisa

- Azpitalde bakoitzak begirale arduradun bat du esleituta, eta bera izango da erreferentea, baita parte-hartzaileak jasotzeko eta amaieran gurasoekin edo legezko tutoreekin uzteko ere. Arduradun horrek distantzia-neurriak errespetatzen direla zainduko du, eta pilaketak saihesten saiaturiko da. Osasun-portaerak eta -materialak kontrolatuko ditu eta, lehen esan bezala, maskarak banatuko dizkie halakorik ez duten parte-hartzaileei.

- Begiraleek prestakuntza espezifiko eta eguneratua jaso dute COVID-19ari buruz, ezartzen ari diren neurri eta protokolo espezifikoari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz, dagokion osasunagintaritzak ezarritakoarekin bat etorritz.

7. Parte-hartzaileen joan-etorriak, jasotzea eta entregatzea

- Azpitaldearen arduradun den begiraleak zaindu behar du parte-hartzaileak jaso eta beren legezko tutoreei entregatzen zaizkiela, horretarako zehaztuta dagoen ordutegian.
- Jarduera egingo den lekurainoko joan-etorriek fase bakoitzerako herritarrentzat ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, oro har.

8. Jarduera garatzeko baldintzak

8.1. Jardueren aurreko informazioa eta komunikazioa

Erakundeak informazio hau emango die parte-hartzaileei eta gurasoei edo legezko tutoreei:

- Jarduera egiten den bitartean higie- eta segurtasun-arloan hartuko diren prebentzio-neurrien dokumentu argigarria.
- Jarduera COVID-19ra egokitzeko dokumentu bat
- Kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenerako prebentzioko eta jarduteko protokoloa (erakundeak garatu behar du eta parte-hartzaileei eta legezko tutoreei eman behar die).
- Parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentu bat (parte-hartzaileek eta legezko tutoreek sinatu beharrekoa) IV ERANSKINA.

8.2. Jarduera egiten den bitartean:

- Jardueraren arduradunek segurtasuna zainduko dute, instalazioetan sartzean osasun-adierazpena eginez eta ezarritako segurtasun-protokolo eta -arau guztiak behar bezala betez.
- Begiraleak ezarri diren prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta gainerakoen onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatuko du (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); eta instalazioak nola erabili ere adieraziko du (adibidez, gelak, komunak, hala badagokio).
- Begiraleak taldeari jakinaraziko dio nola egingo den jarduera, bisita edo ibilbidea, bai eta aplikatzen diren arauak edota izan daitezkeen murrizketak ere.
- kontaktu fisikoa eskatzen duten agurtzeko moduak saihestuko dira.
- Begiraleak portaerak kontrolatuko ditu eta maskarak banatuko ditu, osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan.
- Diziiplina-neurriak aplikatuko dira, arauak betetzen ez badira.
- Materiala ez da partekatuko parte-hartzaileen artean, ezta begiraleekin ere.

8.3. Jarduera amaitzean

- Erabilitako babes-materialak (maskarak) behar bezala botako dira.
- Harreman pertsonala ahalik eta gehien murriztuko da jardueraren osteko kudeaketetan, komunikazio telematikoa sustatuz.

02. ERANSKINA. COVID-19AK KUTSATZEKO ARRISKUA EDO KUTSATZE POSITIBOA DAGOENEAN JARRAITZEKO PROTOKOLOA

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Jardueran parte hartzeko kontrol-neurriak

- Parte-hartzaileak **ezin du jardueran parte hartu** COVID-19arekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak **ezin du jardueran parte hartu** baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin, sintomarik ez badago ere, pertsonen eta arteko distantzia gorde gabe leku berean egon bada, gutxienez 14 eguneko tartean. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.
- Parte-hartzaileak, bere erantzukizunpean, jardueran parte har dezake, baldin eta kaltebera bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada honako arrazoi hauengatik: adina, haurdun egotea edo lehenagoko afekzio medikoak izatea (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa).

2. Kutsapenen prebentziorako neurriak

Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da jarduerara joango eta arduradunarekin harremanetan jarriko da, hau da, Giltzarriko hezitzailearekin edo Gazteria Sailarekin 688 809899 // 9447892566 telefono-zenbakira deituz edo barakaldogaztea@barakaldo.eus helbide elektronikora idatziz.

- Jarduera hasi aurretik, udalak/entitateak/enpresak informatzeko esku-orri digital bat banatuko du honako hauek zehaztuz:
 - Ezarritako segurtasun, portaera eta higieneko neurriak.
 - Erabiltzaileak instalazio barruan bete beharrekoak.
 - Hartutako beste neurri batzuk
- Jardueraren hasieran arduradunek parte-hartzaileen temperatura kontrolatuko dute eta agindutako protokolo eta segurtasun-neurri guztiak betetzen direla ziurtatuko dute.
- Jarduera garatzen den bitartean, arduradunek:
 - Garbiketa eta desinfekzioa sakonagoak izatea zainduko dute, laneko higiene- eta osasun-gaietan eskumena duten agintarien gomendioei jarraituz.
 - Begiraleen eta parte-hartzaileen artean higiene-praktika osasungarriak sustatu eta indartzeko lan egingo dute.
 - Higiene- eta prebentzio-neurriekin seinaleztatuko dituzte instalazio guztiak, eta seinale batzuk jarriko dituzte funtsezko eremuetan, hala nola bainugeletan, jantokietan, korridoreetan eta ikasgeletarako sarrerako ateetan.

- Jardueraren arduradunek bileren, ekitaldien eta talde-jardueren premiak eta arriskuak baloratuko dituzte, eta arrisku handiena dakartenak atzeratzea aztertuko dute.
- Jardueraren arduradunek begiraleei eta parte-hartzaileei eskatuko diete, ondoeza edo gaixo egoteko sintomarik izanez gero, beren etxean geratzeko.
- Jardueraren arduradunek legez onartutako protokoloari jarraituko diote begirale edo parte-hartzaile bat edozein unetan gaixotzen bada, bai eta langileek nahiz parte-hartzaileek kutsatzea saihesteko jarraitu behar dituzten prebentzio-neurriak indartzeko protokoloari ere.

JARDUERAK EGITEN DIREN BITARTEAN COVID-19KO KASU BAIEZTATU BAT DAGOENEAN NOLA JARDUN

- **Konpromiso pertsonala segurtasun- eta higiene-neurriekiko.** Jarduerak egin aurretik, familiak edota parte-hartzaileek jarduera horietan izena emateko eman duten informazioan eta begiraleei eman zaien informazioan gogorarazi zaie beren osasunegoeraren eta higiene- eta prebentzio-arauak betetzearen erantzule direla, eta inola ere ez dutela joan behar jardueretara sintomekin edo ondoezarekin.
- **Sarreran arriskua ebaluatzea.** Arnas infekzioa, eztula, sukarra (+37^o), eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo usaimena galtuta dituzten pertsona guztiak izan daitezke COVID19ko kasuak. Jardueran sartzean, berehala identifikatuko dira, eta familiari edo tutoreei jakinaraziko zaie, eman diguten telefonoan, bai eta inguruko Osakidetzaren osasun-zentroari ere, eta haiek emango dizkigute jarraitu beharreko jarraibideak. Identifikazioa egingo da tenperatura neurtzeko gailuen bidez, behatuz edo parte-hartzaileek egindako jakinarazpenen bitartez.
- **COVID-19ko kasu bat izan daitekeena identifikatzea.** Behin jardueran murgilduta gaudela sintomak agertuz gero, partehartzaileak jarduera hori eten beharko du, langileei eta begirale arduradunari jakinaraziz; eta aurretik ezarritako segurtasun- eta distantzia-neurriak zorrotz bete beharko ditu. Sintomak ezagutu ondoren, begiralea harremanetan jarriko da Osakidetzaren osasun-zentroarekin, egoeraren berri emateko eta jarraibideak jasotzeko, bai eta familiekin ere, egoeraren berri izan dezaten.
- **Jarduteko prozedura.** Pertsona espazio bereizi batera eramango da. COVID-19 pandemiaren trantsizio-faseko diagnostiko-, zaintza- eta kontrol-estrategiaren arabera, erreferentziako lehen mailako arretako bere taldeak egin behar ditu balorazio klinikoa eta proba diagnostikoen eskaera, hori baieztatzeke, jakinarazteko, kasuaren jarraipen klinikoa egiteko eta kontaktuen azterketari ekiteko. Langilearen kasuan, erreferentziako lehen mailako arretako taldearekin harremanetan jarriko da, erreferentziako telefonoarekin eta/edo Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin, eta haren jarraibideak beteko dira.
- **COVID-19ko kasu bat baieztatu ondoren nola jardun.** Erakundearen protokoloa martxan jarriko da, eta une oro Osakidetzaren gomendioei jarraituko zaie.
- **Konfidentzialtasuna eta osasun-sistemara bideratzea.** Infektatutako pertsonaren pribatasuna eta konfidentzialtasuna zainduko dira, indarrean dauden eta legez xedapenak errespetatuz, erakundeak horretarako garatu duen protokoloaren arabera. Baldintza horietan, gaixoa osasun-sistemara bideratuko da.

- **Harremanen arrastoa.** Osasun Publikoaren Zerbitzuari dagokio, Lehen Mailako Arretarekin eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin elkarlanean, langilea bada, hautemandako kasu positiboen kontaktue azterketa antolatzea.
- **Jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartzea.** Osasun-agintaritzaren jarraibideei jarraituz, jarduera bertan behera uzteko eta zentroa aldi baterako ixteko agindu ahal izango da.
- Parte-hartzaileak beren etxeetara itzultzea koordinatuko da, eta beren erreferentziazko osasun-sistemetara bideratuko dira, beharrezkoak diren osasun-jardueretarako.
- Jardueri onlineko jarraipena emateko estrategiak ezartzeko lan egingo da, alternatibak ebaluatuz.

03. ERANSKINA. COVID-19. DERRIGORREZKO HIGIENE- ETA PREBENTZIO-NEURRIEN DOKUMENTUA

JARDUERA GARATU BITARTEKO PREBENTZIO-NEURRIAK PARTE-HARTZAILEENTZAT

1. Ez da jarduerara joango...

- COVID-19arekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Kasu horretan, COVID-19aren arretarako telefonoarekin (900 203050) edo bere lehen mailako arretarako zentroarekin harremanetan jarri eta haien jarraibideei jarraitu behar die. Ez da pertsona gehiago dauden lekuetara joango, harik eta beretzat edo besteentzat arriskurik ez dagoela baieztatu arte.
- COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako norbaitekin pertsonen eta arteko distantzia gorde gabe leku berean egon bada. Kasu horretan, segimendua egingo da, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko, 14 egunez.
- Parte hartu ahal izango da adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik kaltebera den pertsona batekin biziz gero (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Baina hori arrisku larria izan daiteke beretzat edo berekin bizi diren pertsonentzat.

2. Jarduerarako joan-etorriak

- Ahal den guztietan, pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia ondoen bermatzen duten mugikortasun-aukerak lehenetsiko dira. Horregatik, garraio individuala lehenetsiko da beti.
- Kaletik oinez joatean, pertsonen arteko distantzia gorde behar da eta maskara erabili behar da.
- Auto batean mugitu behar izanez gero, ibilgailua garbitzeko neurriak zorrotzko ditugu, eta eserleku-ilara bakoitzean pertsona batek baino gehiagok bidaiatzea saihestuko dugu, bidaiarien artean ahalik eta distantzia handiena mantenduz. Autobusez bidaiatuz gero, agintariak horrelako bidaietarako emandako osasun-arauak errespetatuko dira.
- Taxi bat edo VTC bat hartuz gero, pertsona bat joango da eserleku-ilara bakoitzeko, bidaiarien artean ahalik eta distantzia handiena mantenduz.
- Garraio publikoko bidaietan, pertsonen arteko distantzia gordeko da gainerako erabiltzaileekiko. Garraio publikoa erabiliz gero, maskara erabiliko dugu.

3. Jarduera garatu bitartean

- Jardueraren arduradunak, hezitzaileak, arduratuko dira segurtasun-distantzia eta -neurriak betearazteaz.
- Parte-hartzaileek beren taldearen arduradunei kasu egingo diete, eta jardueran pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia gordeko dute, espazio itxietan nahiz aire zabalean, eta instalazioetarako sarrera-irteeretan.
- Parte-hartzaileek maskarak eramango dituzte, osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, eta eskularruak, jarduerak hala eskatzen duenean.
- Oro har, jarduerak irauten duen bitartean ezingo da jan.

4. Jarduera antolatzeko neurriak

- Hezitzaileek ziurtatuko dute parte-hartzaileek maskarak dituztela edo, behar izanez gero, beraiek emango dizkiete.
- Hezitzaileek banakako gomendioak jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren higiene-produktuak eman beharko dizkiete parte-hartzaileei, jarduera jakin bakoitzera egokituta. Oro har, xaboa, soluzio hidroalkoholikoa eta maskarak behar bezala hornitu behar dira.
- Hezitzaileek parte-hartzaileei jakinaraziko dizkiete arriskuak eta banaka bete beharreko osasuneta higiene-neurriak.
- Hezitzaileek saihestu egingo dute jardueran material partekatuak erabiltzea.
- Higiene- eta segurtasun-neurriei buruzko informazioa emango da instalazioetako puntu garrantzitsuetan kartelak jarritz, erakundeen webguneetan eta dokumentuak entregatuz, ahal dela bide telematikoz.

5. Jardueran parte hartuko dutenentzako gomendioak

- Maskara erabiltzea osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, begiraleak hala eskatzen duenean.
- Jardueraren arduradunak adierazitako prebentzio-neurri guztiak beteko dira.
- Pertsonen arteko distantzia mantenduko da (2 metro inguru).
- Kontaktu fisikoarekin agurtzea saihestuko da, eskua ematea barne.
- Eskuak urarekin eta xaboiarekin garbituko dira, edo soluzio hidroalkoholiko batekin, bereziki ezul edo doministiku egin ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen azalera ukitu ondoren.
- Higiene pertsonaleko edozein hondakin -batez ere, erabili eta botatzeko zapiak- berehala botako da horretarako prestatutako paperontzietara edo edukiontzietara.

- Sintomak antzemanaz gero, arreta handiz zainduko dira urruntze soziala eta higiena, eta jardueraren arduradunei jakinaraziko zaie berehala jar daitezela harremanetan osasunzerbitzuekin.

BEGIRALEENTZAKO, ANTOLATZAILEENTZAKO ETA LANGILEENTZAKO BERARIAZKO SEGURTASUN NEURRIAK

6. Begirale eta langileentzako neurri orokorrak

- Maskarak erabiliko dira osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, eta eskularruak, jarduerak hala eskatzen duenean.
- "Jarduera garatu bitarteko prebentzio-neurriak parte-hartzaileentzat" ataleko argibide guztiak begiraleek eta antolatzaileek ere errespetatuko dituzte.

ERABILTZAILEEI ETA LANGILEEI BETE BEHARREKO ARAUAK JAKINARAZTEKO NEURRIAK

- Zerbitzu aktiboei buruzko informazioa emango da erabiltzaileekin etengabe komunikatuz, bereziki www.giltzarri.info webgunearen bidez eta telefono mugikorraren bidez.
- Kartelak jarriko dira ondo ikusteko moduko informazio orokorrarekin: komunikaziozirkularrak/informazio-oharrak, jarraitu beharreko ohiturei, jarduerak egiteko moduari eta kontuan hartu beharreko neurriei buruz, norberak eraman beharreko materialei buruz, etab.
- Informazio-kartelak estrategikoki kokatuko dira; horrela, jarduera ingurune itxi batean egingo bada, eskuen higienerari eta arnas higienerari buruzko informazio-kartelak jarriko dira sarreran, korridoreetan eta gune komunetan.

04 ERANSKINA. COVID-19. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO DOKUMENTUA

Dokumentu honek parte hartzeko baldintzak onartzea, informazioa emateko eta baimena emateko betebeharra jasotzen du, bai eta "Giltzarri 2020-2021 Ikasturtea" programan parte hartzeko Barakaldoko Udalak garatu beharreko ereduak ere, gurasoek eta/edo legezko tutoreek ezagutu eta sinatu beharrekoak.

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Barakaldoko Udalak parte hartzeko baldintzak onartzeko, informatzeko eta baimen informatua emateko dokumentu hau egin du, gazteak jarduera horietara mailaz maila itzultzea ekarriko duen jarduerara pixkanaka itzultzeko egoera batean.

Proposamen hori agintari eskudunak onartuko du, indarrean dagoen legediaren barruan. Gainera, Barakaldoko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Osasun-agintaritzak une bakoitzean zehazten dituen protokoloak edota jarraibideak aplikatzea.
- Dokumentu honetan azaldutako neurri orokorrak sartzea
- Indarrean dagoen legeriaren beste alderdi egoki batzuk sartzea

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEA

Eskoletako eta erakundeetako hezkuntza ez-formaleko jardueren edozein jardueratan parte hartu nahi dutenek idatziz eta aldez aurretik onartu beharko dituzte parte hartzeko baldintza hauek:

1. Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldeetako kide batekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena

Parte-hartzailea arrisku-talde bateko kide da honako kasuetan:

- Parte-hartzaileak **ez du jardueran parte hartuko** COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak **ez du jardueran parte hartuko** baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin, sintomarik ez badago ere, pertsonen eta arteko distantzia gorde gabe leku berean

egon bada, gutxienez 14 eguneko tartean. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.

- Parte-hartzaileak jardueran parte har dezake, baina ez luke parte hartu behar, baldin eta zaugarria bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada 60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunoeskasiak, edo haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik. Parte hartzea erabakitzen badu, berak edo bere senideek duten arriskua jasota utziko du baimen informatuan.

2. Osasun-egoera eta ez joateko arrazoia egunero jakinarazteko konpromisoa

- Parte-hartzaileek egunero jakinaraziko diote beren osasun-egoera beren azpitaldeko begirale arduradunari, mugikorraren edo beste bitartekoren baten bidez, jardueran hasi aurretik.
- Parte-hartzaileek beren azpitaldeko monitore arduradunari jakinaraziko dizkiote jarduerara ez joateko arrazoiak, mugikorraren bidez edo beste bitarteko baten bidez.
- Jardueran parte hartzen duen pertsonaren batek COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu, ez da joango eta bere arduradunarekin (gerentea, zuzendaria, monitorea, etab.) harremanetan jarriko da.

3. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartzea (eranskina)

4. Baimen informatua sinatzea (eranskina)

5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik kalteberak diren taldeek parte hartzeko baldintzak

Desgaitasunen bat edo premia bereziren bat, ahultasun sozioekonomikoren bat, etab. duten pertsonekin, arreta espezifikoko neurriak hartuko dira: pertsona bakoitzeko begirale gehiago dituzten talde txikietan lan egitea edo begirale laguntzaileak jartzea, agindutako babes-ekipoak hornitzea, etab., jardueran haien erabateko parte-hartzea bermatzeko.

Gurasoek edo legezko tutoreak egoera horren berri emango diote jardueraren ardura duen erakundeari, moldatzeko neurri egokiak hartu ahal izan ditzan

**2020-2021 IKASTURTEAN BARAKALDOKO UDALEKO "GILTZARRI" AISIALDI HEZITZAILEKO ETA
NERABEENTZAKO PARTAIDETZAKO ZERBITZUKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO
BALDINTZAK, INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA
ONARTZEKO EREDUA**

Izen-abizenak:.....NAN.....

Interesatua bera interesatuaren (adingabea) guraso
/legezko tutorea

Talde kaltebera batekoa edo egokitzapen-premia bereziak dituen: Bai Ez.

Baiezkoa bada, zehaztu:

Nire erantzukizunpean adierazten dut eskatzen dudala goiburuan ageri diren datuak dituen pertsonak (interesdunak) Barakaldo Udaleko "Giltzarri" Zerbitzuak garatuko dituen jardueretan parte hartzea. Horretarako, zehatz-mehatz irakurri dut Barakaldoko Udalak emandako informazioa, eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut, nahitaezko higie-eta prebentzio-neurri pertsonalekin dudan konpromisoa adierazten dut, eta COVID-19arekin kutsatzeko aukeraren erantzukizun osoa nire gain hartzen dut.

(Markatu dagokion lekuan)

Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldeetako kide batekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena

Adierazten dut interesdunak betetzen dituela parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentuan ezarritako onarpen-baldintzak, eta interesduna ez dela arrisku-talde bateko kidea.

Adierazten dut interesduna ez dela arrisku-talde bateko kide den inorekin bizi, edo, hala bada, bere erantzukizunpean parte hartzen duela jardueran.

Konpromisoa hartzen dut interesdunaren osasun-egoera jakinarazteko COVID-19ren sintoma bateragarriak izanez gero, edo, hala badagokio, haren absentziaren kausa jakinarazteko (mugikorraren bidez edo beste bideren baten bidez).

COVID-19aren aurrean hartu beharreko derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentuaren onarpena

□ Irakurri dut eta onartzen ditut derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentuan jasotako konpromisoak Jarduera COVID-19ra egokitzeari buruz erakundeak emandako dokumentuak irakurri eta onartu izanaren adierazpena

□ Adierazten dut erakunde arduradunak jarduera COVID-19ra egokitzeko egin duen protokoloa jaso eta irakurri dudala, eta, beraz, erabateko ezagutza dudala eta bat natorrela bertan proposatzen diren neurri eta prozedurekin.

□ Adierazten dut erakunde arduradunak larrialdietan edo kutsatzeko arriskua dagoenean jarduteko prestatu duen protokoloa jaso eta irakurri dudala.

COVID-19ari buruzko baimen informatua

□ Adierazten dut, aurreko dokumentuetan jasotako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, badakidala zer arrisku dakartzan, bai beretzat, bai harekin bizi diren pertsonentzat, interesdunak jardueran parte hartzeak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren testuinguruan; eta horren erantzukizuna nire gain hartzen dut.

Barakaldon, 202..koren(a)n.